

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak 13 enpresa nafar sustatu ditu euskara beren funtzionamenduan sartzeko

68.000 euro eskuratu dituzte guztira euskara-planak egiteko, horiek garatzeko edo neurri zehatzak martxan jartzeko

Osteguna, 2018.eko abenduak 13

13 enpresa nafar izan dira [68.000 euro](#) eskuratu dituztenak, Nafarroan kokatutako sektore pribatuko lantokietan euskararen erabilera eta presentziarako planak sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren barnean.

Deialdia Euskarabideak jarri du martxan, eta [Euskararen I. Plan Estrategikoa](#) ekimenaren lehen ardatz espezifiko helburuen barruan kokatzen da. Plana 2017an onartu zuen Nafarroako Gobernuak. Helburu horien artean dago euskararen erabilera, presentzia eta ikusgarritasuna areagotzea lantokietan, euskararen plan bat gauzatu eta/edo aplikatu edo plan horietatik kanpo neurri zehatzak ezarri.

Hala, deialdiko hiru modalitateetan parte hartu dute 13 enpresa horiek. 1. modalitatea enpresarako lehen euskara-plan bat lantzerantz zuzentzen da, euskara mailaz maila entitatearen jardunean sartzen joateko, egoeraren analisia eta diagnostikoa, planaren diseinua, kronograma, ezarpena eta ebaluazioa eginda.

2. modalitatea aurrez ja plan bat zuten enpresentzako da, eta aurreikusitako jarduerak gauzatea du helburu, plana ezagutzera emateko komunikazio-ekintzak egitearekin batera. 3. modalitatea, azkenik, ekintza zehatzak egitera zuzentzen da, euskararen aurretiazko planik gabe.